

2021eko Nazioarteko Prestakuntza-zikloa.

Bilboko FITek proposatu eta antolatuta.

Kostua. Izena ematea: 50 euro ikastaro bakoitzeko. Prestakuntza-ziklo osoan (hiru ikastaroetan, 56 ordu) parte hartzeak 100 euroko kostua izango du.

Parte-hastzaileak: aktoreak, titiriteroak, dantza modernoko dantzariak, zirku garaikideko eta kaleko arteetako artistak (profesionalak, zaleak edo prestakuntzan daudenak).

Hizkuntza. Irakasleagoak berak aurkeztuko ditu ikastaroak erdaraz.

Lekua: TXOTENA ZENTROA - Otxarkoaga

Koordinatzailea eta ekimenaren arduraduna

Bilbao TX Festival. Bilbako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia

info@bilbaotxfest.org

festival.titeres.bilbao@gmail.com

Telefonoak: 658 740 957 (Olatz) & 688 611 614 (Juanjo)

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ekonomikoki lagundutako Formakuntza Zikloa.

Aurkezpena

Prestakuntza-ziklo hau Bilboko 40. Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiarekin batera eta paraleloan egiten den jarduera da.

Antolaketa eta jarraipen berezia izango du, eta jaialdiaren egitarau baino lehen egingo da. Bilboko 40. FITeko datak 2020ko azaroaren 20tik 28ra izango dira.

Prestakuntza-datak urrian eta azaroan banatuko dira. Horrela, aurten hirugarren ziklo hau itxiko duen etengabeko prestakuntza-komunitate txiki honeri epe handiago emango diogu.

Proposamen honen funtsezko motibazioa Euskadiko arte eszenikoen sektorearen beharrari erantzutea da, bere prestakuntza-curriculum txotxongiloen eta objektuen

dramaturgia garaikidearekin lotutako teknikarekin eta metodologiarekin osatuz. Formazio perfilean eta aktore-dramaturgiako baliabidetan faltan somatzen dugun aspektua da.

Era berean, uste dugu prestakuntza dela arte eszenikoen sektorean txotxongiloen eta objektuen antzerkiak maila profesionalean eskaintzen dituen aukerak eta abantailak ikusteko motibaziorik onena, eta Euskadin minimoa dela eta ekoizpen-kalitatea gaindiezina duela.

Euskadin arte eszenikoen sektorean txotxongilo eta objektuen antzerkiak duen maila minimoa eta ekoizpen-kalitatea gaitzekoa da, horregatik maila profesionalean eskaintzen dituen aukerak eta abantailez jabetzeko, prestakuntza dela motibaziorik onena pentzatzen dugu.

Prestakuntza horrekin, antzerki-diziplina horrek arte dramatikoaren familian duen garrantzia ere aldarrikatzen dugu; baita ere aktore-titiriteroaren baliabideetan integratzearen garrantzia (haren berdintasuna justifikatuz, garrantziari dagokionez, jardun dramatikoarekin).

Proiektu hau hiru ikastaro-tailer trinkotan banatutako prestakuntza-ziklo gisa planteatzen dugu, guztira 56 orduko iraupenarekin.

Parte-hartzaileek hiru ikastaro egin ahal izango dituzte ziklo osoa eginez, edo edozein ikastarotan, jarraitasunaz aparte eta hautatutako ikastaroaren gai espezifikoiari erreparatuz.

Kurtsoen helburuak:

- Integratzea txotxongiloen eta objektuen antzerkiaren filosofia, estetika eta teknikak formakuntzan.
- Zehatzago, dramaturgiari buruzko sarrera bat egitea, aktore-titiriteroek manipulaturako objektuen bitartez, manipulazio edo animazio hori asmo dramatikoarekin emateko
- Objektuak helburu dramatikoarekin manipulatuak garrantzi berezia emango die ikusmen-alderdiei eta emaitza dramaturgikoan diharduenaren presentziaz haraindiko egoerak sortzeko aukerei.
- Beste helburu kolateralak: objektuen antzerkiaren teknikak eta materialek titiriteroen tratamenduan duten garrantzia aurkeztea.
- Txotxongiloen eta objektuen antzerkiaren historian eta tradizioetan zehar bidaiatzea, antzinako tradizioetatik gaur egungo garaikidetasun eta sormen dramaturgikora.
- Lan dramatikoaren protokolo berriak txertatzea txotxongiloen eta objektuen antzerki figuratiboaren munduan.

- Teknika eta diziplina artistikoen mestizajeak gaur egungo txotxongiloen eta objektuen antzerkian duen indarra erakustea, arte honen egungo panorama eta erreperorioaren bidez.
- Arte eszenikoetako kolektibo profesionalek baieztatzen duten etengabeko prestakuntzaren beharrari erantzutea, ekoizpen artistikoan eta, beraz, merkatukoa kalitatea hobetzeko

Metodologia:

Ikastaroetan aplikatuko den metodologiaren izendatzaile komuna harremanaren bilaketa-lana da, jarduten duenaren eta objektu bizigabe edo txotxongiloaren arteko teknikan eta metodoan oinarrituta ezartzen dena.

Planteatzen eta lantzen diren materialen zein espazio eszenikoaren mugimenduan eta esperimertzioan oinarritutako dinamikak izango dira.

Objektu animatuen kodea manipulazioaren estandarretan eta materialen adierazpen-aukeretan.

Prestakuntza egingo den gunea.

TXOTENA ZENTROA Bilboko Otxarkoaga auzoan.

Espazioa partekatzen dugu antzerkiaren sektore profesionalarekin lotutako beste 4 elkarterekin, hainbat diziplina eta aplikaziotan. Txotxongiloek, kaleko antzerkiak eta zirkuak, arte eszenikoak hezkuntzan, gizartean eta terapia pertsonalean aplikatzeaz gain, gune honetan biltzen diren jardueren sorta osatzen dute.


Ikastaroak zentro honek duen jarduera anitzeko espazioan egingo dira.

Prestakuntzaren une batzuetan, eta ikastaro bakoitzeko programa eta premiei lotuta, beste gune batzuk ere izan ditzakegu auzo honetan. Barrutiko Udal Zentroarekin eta Harrobia ekoizpen zentroarekin elkarlanean arituko gara.

Kurtsoak:

INES PASIC (Perú)

GORPUTZ-FIGURAK



- **Datak:** 2021ko urriaren 5, 6, 7 eta 5 arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara
- **Iraupena:** 16 ordu
- **Lekua:** TXOTENA ZENTROA (Otxarkoaga)
Aktibitatea livestriming bitartez egingo da Limatik (Perú).
- **Parte-hartzaileak:** Max. 15
- **Hizkuntza:** Gaztelania

https://pe.linkedin.com/in/ines-pasic-20489348/it?trk=people-guest_people_search-card

FABRIZIO MONTECCHI – TEATRO GIOCO VITA (Italia)

GAUZEN ARIMA Itzala eta itzal-antzerkiari buruzko tailerra

- **Datak:** 2021ko urriaren 19, 20, 21 eta 22 goizeko 10:00etatik 15:00etara
- **Iraupena:** 20 ordu
- **Lekua:** TXOTENA ZENTROA (Otxarkoaga)
- **Parte-hartzaileak:** Max. 15
- **Hizkuntza:** Gaztelania

<https://www.teatrogiocovita.it>



RENATO CURCI – CIRCOFORUM (Italia)

ANTZERKIAREN POTERE ASKATZAILEA
TITEREKIN TEATRO FORUM tailerra

- **Datak:** 2021ko azaroaren 8,9,10,11 eta 12 goizeko 9:30etatik 13:30 etara
- **Iraupena:** 20 ordu
- **Lekua:** TXOTENA ZENTROA (Otxarkoaga)
- **Parte-hartzaileak:** Max. 15
- **Hizkuntza:** Gaztelania

<https://it.linkedin.com/in/renato-curci-b20b861b1> / <http://www.circoforum.net>



MATRIKULAZIOA NOLA EGIN:

1. Ordainketa egin zure izen abizenekin ES21 2095 0212 0091 1750 0156 kontu korrontean PAGOA HEZI ELKARTEA

2. Gogoratu ikastaro bakoitzeko izen emateak 50 euro dela eta formakuntza ziklo osoaren (hiru ikastaro, 56 ordu) izen ematea 100 eurokoa.
3. Bidali ordain agiria emailaz. festival.titeres.bilbao@gmail.com
4. Kontuz! Ordaintzeko epea irailaren 30ean bukatzen da.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
ekonomikoki lagundutako Formakuntza Zikloa
Apoyado económicamente
por la Consejería de Cultura de Gobierno Vasco



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kolaboratzaile / Colabora:

Antolatzailea / Organiza:

